

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Urnieta eta Andoain herrien arteko lehiaren bigarren saioa izan zen aurreko ostiralean

2006ko maiatzaren 12a, 68 zenbakia - Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

www.aiurri.com

HERRIEN ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Datorren astean burutuko dira fusilatuen omenezko ekitaldiak

Bernardo Atxagak hitzaldia eskainiko du asteazkenean Andoainen. Fusilatuen omenezko eskultura datorren maiatzaren hogeian inauguratuko da.

Andoain herriak eta herritarrek ere 36ko Gerraren ondorio latzak pairatu zituzten. Gudariak, komunistak, sozialistak..., denera hogeita bi lagun fusilatu zituzten Andoainen. Denbora hau guztia ez da oharkabean pasa eta oroimen historikoa berreskuratzeko **Oroituz** Andoaingo lantaldeak urteak daramatza lanean. Liburua argitaratzeko lanetan ari dira hilabete hauetan.

Bien bitartean, **Andoaingo Udalak** ere fusilatuen omenezko eskulturaren bitartez. Maiatzaren hogeian, larunbarekin, Andoaingo txistulariek, Bandako kideek eta dantzariak parte hartuko dute omenaldian. **Iñaki Eizmendi** eta **Assumpta Zubiarrain** kantariak ere abestuko dute eskulturaren inaugurazioan.



Etxeberrietatik gertu sortu den eremu berrian ipini da 36ko Gerran fusilatu zituztenen omenezko eskultura. © Xabier Ubeda

GERRAN FUSILATUAK
Esterban Olalde, Ambrosio Garcia, Pio Arzallus, Nemesio Fernandez, Cruz Aldasoro, Antonio Aranzabal, Miguel Amondarain, Bautista Martinez, Gregorio Martinez, Blas Rubio, Jose Amilibia, Juan Antonio Irulegi, Secundino Anton, Sixto Prestamero, Faustino Aldaz, Jose Lasa, Patxi Fernandez, Miguel Urretabizkaia, Jose Arana, Jose Mari Monge, Casiano Izquierdo eta Victor Sarasketa.

Hitzaldia

Maiatzak 17, asteazkena

19:30, Bastero Kulturunea
Ekitaldi aretoa
"Markak, arrastoak" izenburupean, irakurketa **Bernardo Atxaga** idazlearen eskutik. Asteasuko idazleak 36ko Gerraren pasadizioetan oinarrituta osatu duen lanaren aurkezpena.

Inaugurazioa

Maiatzak 20, larunbata

12:00, Etxeberrieta plaza
Alfaro parkea
Fusilatuen omenez Andoaingo Udalak antolatu duen inaugurazioa. **Gotzon Etxeberria** Andoaingo eskulturgileak egin duen eskulturaren inaugurazioa. Musika eta dantza saioa izango da.

Puntu bidezko karneta, jakin beharrekoa



Urnietako ITV-IAT gunea. © X.Ubeda

Aiurri honekin batera guztion ahotan dagoen gaia aurkituko du irakurleak: puntu bidezko gidabaimena. Uztailetik aurrera martxan jarriko da, zorrotz jokatu dutela iragarri dute trafiko arduradunek. Aiurrik araudi berriaren inguruko xehetasun guztiak eskaintzen ditu gehigarri berezian. Gidarien intereseko hainbat gai ere bildu dira.

(Erdiko orrialdeetan)

Eskualdea

- Andoain-Urnieta kirol lehia.
- Udal ordezkariekin solasean.

2. or.
3. or.

Urnieta

- Gaztetxoaren jaunartzearen atarian.
- Helduen heziketan ibilitako ikasleak.

4. or.
13. or.

InfoAiurri

- Hiazinto Fernandorenaren iritzia.
- Denborapasak.

14. or.
14. or.

Azkena

- Urnietan kolokan dago astekariaren egitasmoa.

16. or.



Aiurri

Motorra

Aiurri honekin batera, erdiko orrialdeetan:

- Gidariok erne: Puntu bidezko gidatzeko baimena bi hilabete barru martxan jarriko da
- Jakin beharreko guztia modua arinean azalduta **Aiurri**, eskualdeko nortasun hitzak

GIRO EDERREAN JOKATU DIRA ANDOAIN ETA URNIETA HERRIEN ARTEKO PILOTA PARTIDAK

Andoaingo pilotariak nagusi, aurkarien eremuan

Urnietako pilotalekuko harmailak zaletuz bete zen ostiral arratsaldean. Herri arteko Pilota Txapelketako itzulerari zegokion partidak jokatu ziren. Bertako eta Andoaingo alebin, jubenil eta afizionatu

mailako pilotariak giro ezin hobean neurtu zituzten haien indarrak.

Agazkiak: ©Xabier Ubeda



Garaialde, Lejarretak Eskudero eta Beloki, jubenil mailako pilotariak partida hasi aurretik.



Urnieta 1-Andoain 2. Andoaindarrek txapelketan aurrera egiteko txartela eskuratu dute.

ragarpenen arabera, andoaindarrak ziren urnietarren aldean irabazteko aukera gehien zituztenak. Hain zuzen, apirilaren hogeita zortzian Andoainean jokatu ziren joaneko hiru neurketak etxekok irabazi zituzten.

Emaitez aurreikusitakoa baino ez zuten baieztatu. Andoaingo kadete eta afizionatu mailako pilotariak urnietarren aurrean gailendu ziren. Kadete mailako **Mikel Jauregi** eta **Aitor Uranga** andoaindarrek argi erakutsi zuten haien indarra, eskuak minduta zituzten **Jon Pagola** eta **Mikel Garmendia** arerioren aurrean. Edozein kasutan, azken jokalar horien eskuak onenean ez izan arren, erresistentzia izan zen etxekok defentsarako erabali zuten arma nagusia.

Bertako afizionatu mailako pilotariak ere aurkariak mendean hartzeko saiakera izugarria egin zuten. Baina, **Unai Ezeizak** eta **Iñaki Zubillagak Oñatz Gonzalez** eta **Aritz Rekalde** andoaindarrak ezin izan zituzten mendean hartu. Jubeniletan, ordea, oso bestelako emaitzak izan ziren. **Mikel Garaialde**

Urnieta kanporatuta, andoaindarrek txapelketan aurrera egiteko txartela eskuratu dute

eta **Unai Lejarretak** osatutako bikoteak alde handiz irabazi zieten aurkari zituzten **Eskudero** eta **Belokiri**.

Horrenbestez, azkenean gisa honetan geratu zen markagailua: Urnieta 1-Andoain 2. Urnieta kanporatuta, andoaindarrek txapelketan aurrera egiteko txartela eskuratu dute.

BEASAIN, HURRENGO JOMUGA

Andoaindarrek Herri arteko Pilota Txapelketan aurrera jarraituko dute, urnietarren aurka joaneko zein itzulerako sei partidetatik bost irabazi ostean. Urnieta kanporatuta, jada, andoaindarrak final zortzirenetan sartuak dira. Beasainen aurka jokatu beharko dute datozen bi ostiraletan. Txapelketa, aldiz, datorren ekainaren 25ean amaituko da. Andoaindarrak final handian izango ote dira?.

IKUSKIZUNAREN MUINA

Txapelketako jardunaldia amaituta, elkarren arteko lehia pilotalekuan uzten dute. Bartzuek galdu eta besteek irabazi arren, kirol jardunaldiez baliatuta, ez diote afari bat egiteko aitzakiari uko egiten. Joaneko partidaren ostean, Andoainean Santa Krutz jaiak ospatzen zizutela eta, bi taldeek afari eta afalosteko parranda ederra egin zuten. Hain zuzen, Urnietako pilotarien entrenatzaile **Txema Gonzalezek** gogoratzen duenez, "bi herrien artean adiskidetasuna dago".

Beste hainbat herriekin aldearata, Urnietan eta Andoainean eskupilota ez da oso sustraitua dagoen kirol modalitatea. Horrek ere, neurri batean, bi herrien arteko tira-birak izatea oztopatzen du. "Ez dira tradizio pilotazale handiko herriak; bai ordea, ilusio handikoak" baieztatu du Gonzalezek.

ZALETUAK, BIZI-BIZI

Tira-birarik gabe, giro ona. Baina zaleturik gabe, girorik eta ikuskizunik ez. Jokalarien jaioterrietako zaletuak pilota-



Tira-birarik gabe, giro ona. Baina zaleturik gabe, girorik eta ikuskizunik ez.

Joaneko partidaren ostean, Santakrutzetan, bi taldeek afari eta parranda ederra egin zuten

lekura hurbiltzeak esku pilotako neurketak indartu eta are ikusgarriago egiten ditu. "An-

doainean giro gutxi egoten da, baina txapelketa honek jendea mugiarazten du. Aurten ere jendeak oso ondo erantzun du" adierazi du Andoaingo taldeko entrenatzaile **Mikel Rekaldek**. Horren lekuko aipatutako bi herrietan izandako neurketak. Bi jardunaldietan eserleku adina zaletu izan da.

AGINTALDIAREN AZKEN URTEAN SARTUTA, ORDEZKARI POLITIKOEN BALORAKETA BILDUKO DU AIURRI ASTEKARIAK

Azken txanpa hartuz, Udal agintariekin solasean

Herme Gonzalez, PSE-EE. Urnieta

“Akordio, elkarrizketa..., hitz horiek ez dute lekurik izan azken urteetan”

Zorrotza da Urnietako zinegotzi sozialista azken urtean sartzen ari den agintaldiaren inguruko baloraketa egiteko garaian.



Herme Gonzalez, Urnietako zinegotzia.

**Legealdiko azken urtean sartzeaz gaude. Zer azpimarratuko zenuke modu baikor-
rean? Eta ezkorki?**

Herme Gonzalez: Modu baikorren, erraustegiaren inguruan Urnietan izan den mugimendu soziala azpimarratuko genuke. Modu ezkorrean, ia dena: gobernatzeko modua, jasotako tratua, iniziatiba falta, edozer adosteko gaitasunik eza. 2005 eta 2006ko aurrekontuak ez dira onartu, DBHko eraikinarren gaiari irtenbiderik ez diote aurkitu, ezta anbulategi, kiroldegi edota etxebizitzaren arazoei ere. Gure ustez, Udalak Zainketa Bereziko Unitatea dirudi.

Oposiziotik nola baloratzen duzu udal kudeaketa?

H.G.: Sozialistentzat desastre hutsa da. Herriko alor guztien garapenerako legealdiko hiru urte baliotsu galdu dira. Baina argi utzi nahi dugu EAjk Urnietan gutxiengoan agintzen duela.

Udaletik urnietarren ongizatea hobetzeko behar beste egiten dela uste duzu?

H.G.: Oso gutxi. Udaleko teknikari eta langileek eta haien elkarteek hainbat gai proposatu eta garatu dituzte. Hori eskertzekoa da. Baina Udal agintariekin gutxienean ere ez dute egiten. Ez dute inbertitzen, diru laguntzak galtzen ditugu ez direlako eskatzen, baliabideak ez dira ondo kudeatzen...

Erabateko lidergo falta dago. Ondorioz, kalean deskontentua nagusitu da.

Gai polemikoetan Udal Gobernuarekin akordio posiblerik ba al da?

H.G.: Udal honetan kontsentsu, negoziazio, akordio, elkarrizketa... hitzek ez dute lekurik izan azken hiru legealditan. Aldiz, urnietarrentzat ontzat jo dugun edozein gaien alde egin dugu. Asko dira baita gure taldeak aurkeztu dituen ekimen eta mozioak. Baina beti ez dira kontutan hartu.

Datozen hauteskudeei begira, zeintzuk dira zuen aurreikuspenak?

H.G.: Herriak berehalako aldaketa behar du. EAjren zikloak bere porrotaldi politikora ailegatu behar du Urnietan.

Min handia egin diote herriari eta herritarrei. Bestalde, irekita dagoen prozesu penalak arduradun politikoak merezi duten lekuan jartzea espero dugu.

Ezker abertzalea udalera itzultzeak zein modutan eragingo du?

H.G.: Horretaz mintzatzea goizegi dela uste dugu. Esperantzaz eta batez ere, kautelaz hartu dugu su-eten iraunkorraren albistea, egun bizkartzainekin eta askatasunik gabe jarraitzen baitugu.

Prozesu hori normalizatzea nahi dugu. Gure alderdiko bozeramaleek ondo dioten bezala, prozesua luzea, geldoa eta zaila izango da.

Juan Carlos Cano, PP. Andoain

“Gobernuan gaudenak aurkeztutako programa gauzatzen ari gara”

Hamabigarren urtea egin behar du Juan Carlos Canok Udalgintzan. Azken agintaldia, gainera, Udal Gobernu taldean.



Juan Carlos Cano, Andoaingo PP alderdiko burua.

Udaletik herritarren ongizatea hobetzeko behar beste egiten dela uste duzu?

JCC.: Udalak ondasun mugatu batzuk kudeatu behar ditu. Gobernu talde bakoitzak herriko errealitatea aztertu eta beharren arabera lehentasunak ezartzen ditu. Lehentasunak ezartzean aukeraketa egiten da, derrigorrez. Gure aukeraketa gobernuak duen programan aurki daiteke. Ni ez naiz egokiena galderari erantzuteko baina gure apustu politikoa gauzatzen ari gara agintaldian.

Gai polemikoetan oposizioarekin akordio posiblerik ba al da?

JCC.: Oposizio osoak alternatiba izateari utzi dio, ez dira argudioen bitartez oposizioa egiteko gai. Hori larria da eta jarraipertsonalak kritikatzera mugatzen dira. Ez soilik alkatea eta zinegotziak baizik eta udal teknikariak ere kritikatzeko dituzte, horrek guztiak dakarren tentsioarekin. Helburu bakarrarekin gainera, gobernuaren oreka hankaz gora jartzea.

Datozen hauteskudeei begira, zeintzuk dira zuen aurreikuspenak?

JCC.: Aurreikuspenak goranzkoak dira. 1000 bototik gora eskuratu nahi ditugu, benetako masa kritikoa osatzeko. Etorbizunera begira bertako jendearekin osatu nahi ditugu zerrendak.

Ezker abertzalea udalera itzultzeak zer modutan eragingo du?

JCC.: EA, Aralar... ezkertiar eta abertzale kutsuko alderdiak aurkeztu ziren aurreko hauteskundeetan. Estatuan ere ezkertiar eta abertzale diren alderdi asko dago.

Batasunaren ilegalizazioa ez da oinarritzen bere ideologia politikoan, ezta gutxiago ere. ETA eta bere erakundeak heriotzan eta estorsioan oinarritu dira. Terrorismoa ez da politika. Zuzenbidezko estatuak eskubide eta betebeharrak du terrorismoa borrokatzea. Grande Mar-laska epaileak orain oso gutxi berretsi du Batasuna lege kanpo dagoela.

**Legealdiko azken urtean sartzeaz gaude. Zer azpimarratuko zenuke modu baikor-
rean? Eta ezkorki?**

Juan Carlos Cano: Udalaren martxa normalizatzea zen gure helburu nagusia. Kudeaketa gardena egingo genuela hitz eman genuen. Gobernu programa aurrera eramanez, gure ibilbidea ulertzeko ezinbesteko erreferentzi bilakatu dena. Alde horretatik, Udaletxearen martxa normalizatu delako pozik gaude. Akatsak akats, desberdintasun handiak dituzten bi alderdiek ezarritako erronka bide onetik doa.

Nola baloratzen duzu udal kudeaketa?

JCC.: Bihotzarekin erantzungo dizut. Oso urte latzak igaro ondoren, andoaindarren beharrei erantzuten saiatzea sekulako poza da. Gure familiak ere dinamika zail batera bideratu ditugu, nire alderdian denok ez dute guk izan dugun zorte bera izan... Andoainen bederen gure bokazioa aurrera eramaten ari gara egunero ko lanarekin. Hori, zinez, poztekoa da.

Alebinen partidak Urnietan



Gipuzkoako Alebin Txapelketa (2006-5-6)

Urnietako III (Aritz Lizaso eta Aitor Pagola) 16-Mundarro 4

Hernani 3 16-Urnietako II 12 (Julen Loitegi eta Ander Oiartibe)

Urnietako IV (Ruben Castaño eta Ander Goikoetxea) 3-Gazteleku 16

Nafarroako irteera, bertan behera

Igaro den igandean, maiatzak 7, Udaleko Euskara Sailak Nafarroara antolatu zuen txangoa bertan behera geratu zen. Gutxienez 35 lagunek eman behar zuten izena, baina azkenean 30ek soilik eman zuten izena. Aralarko San Migel, Mendukilo kobak eta Lekunberriko tren geltoki zaharra bisitatzeko asmoa zegoen. Hurrengo irteera, ekainaren 18rako iragarri dute.

BIGARREN MANIFESTAZIOA



Gipuzkoa mailako manifestaldia, larunbat honetan Donostian.

© Ubeda

Agintariak proposatutako autobien aurkako manifestaldia izan zen igande eguerdian. Arau Subsidiarioen komisiok, Arnasa plataformak eta Berrasoetako bizilagun elkarteak egindako deialdiari herritar askok erantzun zioten. Foru arauak aipatzen duen babes zonaldea ez errespetatzeak, eragingo lituzkeen osasun eta ingurugiro arloko kalteak, eta plan-gintza akatsez bete egoteak bultzatu zituen manifestaldia deitza.



Eusko Jaurlaritza

Kultura Sailak diruz
lagundutako hedabidea

Jaunartzea igarota, egunpasa irtengo dira ekainaren hamaikan

Urnietako gaztetxoak jaunartzearen atarian



Aurten jaunartzea egingo duen gazte taldeetakoak.

Urduri, aztoratuta, eta arrazoi ezberdinen-gatik eguna iristeko gogotsu. Hala aurkitu genuen katekesiko haur talde bat, jaunartzeko aste-bete eskas falta zutela. Hiru urteko katekesi klaseak jaso ostean eta azken asteko entsaioak egin da, jaunartzeko prest izango dira Urnietako 64 haur. Hiru talde-tan banatu dituzte. 28 haurrek igande honetan, maiatzak 14, jaunartuko dute; hamalauk euskaraz, gainerakoak erdaraz. Hilaren 21ean, aldiz, gainerako 36 haurren txanda izango da; guztiek euskaraz.

Iganderako denak prest egon behar du: haurrak almirantzez edota soineko zuriz jantzita, gurasoak egun berezi horretarako espreski atonduta, abestiak eta irakurgaiak prestatuta... Horretarako, guraso, haur eta parrokiako arduradunen talde lana ezinbestekoa izaten da. Hori parroki barruko ekitaldiari dagokionean. Aldez aurretik ere, bazkaltzeko mahaia erreserbatu beharra izaten da, ia denek etxetik kanpo ospatzen baitute haurrak protagonista nagusi dituen eguna.

Egun horretako beste osagai

Jaunartzeak datozen bi igandetan izango dira: hilaren 14an eta 21ean

garrantzitsuak opariak izan ohi dira. Gurasoek diru dezente xahutu beharko dute, haurrek eskatutako guztia oparitu nahi badiete behintzat. Hain zuzen, eguberri garaian bezala, gurasoei nahi adina opari eskatzen diete. Urteak aurrera egin ahala aldatzen doazen opariak. Garai batean, arropa edo dirua oparitzen bazen, teknologia berrien garaian murgilduta, merkaturatu berri diren bideo jokoak, MP3ak, ordenagailuak edota mugikorrak jaunartze egunez gurasoek seme-alabei eskaintzea ohi-ko bihurtu da.

MAIATZAREN 14AN ETA 21EAN

Jaunartzeak datozen bi igandetan izango dira: hilaren 14an eta 21ean. Jaunartu behar dutenek eta haien senitarteko, lagun, eta erlijiozko ekitaldi horretako antolatzaileak San Migel Parrokian bilduko dira goizeko 11:30etan. Jaunartzeko

ekitaldia eta ekitaldi ostea herriko txistulari eta dantzari-ek alaituko dute. Hamaiketako ederra dastatzeko aukera ere izango dute.

BERRIKUNTZAK TXERTATZEN

Jaunartze horrekin batera, urtero, irteera bat antolatzen da Parrokitik Otzaurtera (Aizkorri). Aurtengo egunpasa ekainaren 11ean izango da. Ibilaldi txiki bat, meza, eta bertako bordan otordu ederra egingo dute.

Denborarekin txertatu duten berrikuntzetako bat izan da. Baina ez bakarria. Amaitzear den ikasturte honetan, lehen aldiz, katekesiko arduradunak bertan ikasten duten haurren gurasoekin hilero bildu dira. Horietan, haurrei hil osoan irakatsi zaizkien ikasgaiak azaldu zaizkie, gurasoek etxean haurrei irakasteko aukera eskaini asmoz. Hiruhilabetero guraso eta haurrekin ere bestelako bilerak eta txokolatadak egiten dituzte.

Bestalde, 2006-2007 ikasturte berriari begira, jaunartu duten haurrei hilero meza eskaintzeko asmoa dute.

Aiurri

2006. maiatza

Motorra



2. SEINALEAK ONDO EZAGUTZEN AL DITUGU?

3. EMAKUMEZKOENA ERE BADA MOTORRAREN MUNDUA

4. PUNTU BIDEZKO KARNETA

6. ZURE JAKINDURIA FROGATZEKO LEHIAKETA

7. ANA SANCHEZ, AUTOESKOLAKO IRAKASLEA

8. ITV-KO ARDURADUNARI ELKARRIZKETA



ESKAINITZA

902 345 125
clientes@giauto.es

Hilero hilero
zure Opela zaintzen dugu

-24%
Olioa

-10%
Filtro

-10%
Haizetako
Garbigailuak



Pneumatikoak



Giauto

* Maiatzaren 1etik 31ra bitartean

ELGOIBAR · BERGARA · ARRASATE · EIBAR · ANOETA · OLABERRIA

www.giauto.es

Behar bezala ezagutzen al ditugu?



Zubia zeharkatu aurretik ondo begiratu

SACEM bidea bezala ezaguna den tokia (Villabona)

Ez da ohikoa irudian ageri den seinalea ikustea eta gidari askok ez du bere esanahia ezagutzen. Errepidea estutzen den tokietan egoten da. Seinale honek lehentasuna ematen digu. Beste zentzutik datozenek, gu pasa arte itxaron beharko dute.



Non geratu semaforoa gorri jartzen denean?

Kale Berriko semaforoa (Andoain)

Semafoaren aurretik marra bat izaten da lurrian margotuta. Kasu honetan, ordea, bi marra daude. Lehendabiziko marraren atzean geratzea izango litzake egokiena. Bigarren marra, eskubiko kaletik datozenentzat dago. Beraz, irudiko autoak ez du ondo egin.

Orlegi jartzen ez den semaforoa

Hiru-aldetako bidegurutzea (Villabona)

Irudiko semaforoak bi kolore besterik ez ditu, gorria eta horia. Argi dugu semaforo gorriaren aurrean zer egin, baina hori intermitentea pizten denean, nola jokatu? *Stop* seinalea azpian izanik, derrigorrezkoa da bidegurutzea zeharkatu aurretik geratzea.



Nork du lehentasuna?

Andoaingo irteera (Andoain)

Andoaingo irteeran eman bidea seinalea aurki daiteke. Eskubitik datozen autoei ez diegu enbarazurik egingen, beraz, ezkerretara begiratu behar. Parean ageri den *Stop* seinalea egin eta gure norabide bera hartzen dutenei eman behar diegu lehentasuna.



Zer egin ezkerretara joateko?

Idiazabal kalea (Urnieta)

Semafoaren azpian dagoen seinaleak, aurrera edota eskubitara joatera behartzen gaitu. Ezkerretara joan nahi duenak, eskubitara sartu eta errotonda erdia erabili beharko du, debekatuta baitago zuzenean ezkerretara joatea. Bide bera hartu beharko dute norabidez aldatu nahi duten gidariek.



Marrarik ezean, non geratu?

Azkorte kalea (Urnieta)

Derrigorrezkoa da *Stop* seinalearen aurrean ibilgailua geratzea. Normalean, geldialdia non egin adierazten digun marra bat izaten da lurrian. Marrarik ez dagoenean, bidegurutzea ongi ikusten dugun puntu batean geratu beharra dago, inori oztoporik egin gabe. Kasu honetan, ispiluak eskaintzen digu beharrezko ikuspegia.

Emakumezkoak motorrean aditu



Gema Loiarte

IZASKUN AUTOBUSAK (ANDOAIN)

1- Ia lau urte daramatzat autobusak gidatzen. Erizaintza ikasketak egin nituen eta horretan ari nintzen lanean. Haur bat izan nuen eta oso zaila egin zitzaidan lana eta umea bateratzea. Autobus enpresan lanpostua eskaini zidaten eta geroztik hemen nabil, administrari lanak egiten eta, baita behar denean, autobusa gidatzen ere. Bost autobus mota ditugu. Txikienak hamasei eserleku ditu eta handienak berrogeita hamabost. Txandaka gidatzen ditugu, beharren arabera. Lantokian zortzi langile gaude eta horietatik hiru emakumeak gara. Niri asko gustatzen zait gidatzea, aurrerantzean ere honetan jarraitu nahiko nuke.

2- Geroz eta ohikoagoa da autobuseko gidari lanetan emakumeak ikustea. Duela urte batzuk, oso arraro gertatzen zen emakume batek autobusa gidatzea.

Orain ere, bada harrিতuta begira gertatzen denik, baina pixkanaka ohitzen ari da jendea. Ea laster lortzen den ohikoa izatea! Emakume izateak ez dit arazo berezirik eragin. Txikieria batzuk gertatzen dira, baina ez zaie garrantzia berezirik eman behar. Toki estu batean maniobra egin behar eta "ez dik atera-ko" entzutea tokatu izan zait, edota norbaiti aurreratu eta emakumea naizelako minduta sentitzea, baina horrelako gauzak ez ditut kontuan hartzen.

3- Jendearekin harreman zuzena izatea da gehien gustatzen zaidana, eta zailena, ordutegiak moldatzea izaten da. Zerbitzu finkoak egiten ditugu, haurrak eskolara eraman, langileak enpresetara..., baina bestelakoak ere bai. Talde ezberdinek autobusa alokatzen dute eta zerbitzu bereziak egiten ditugu.

GALDERAK

- 1-NOIZ HASI ZINEN GIDARI LANETAN?
- 2-INOIZ BAZTERTUTA SENTITU AL ZARA EMAKUME IZATEAGATIK?
- 3-ZEINTZUK DIRA ZURE LANAREN ALDE ONAK ETA TXARRAK?



Mari Jose Ruiz

ITZURUN OBRADOREKO BANATZAILERA (ANDOAIN)

1- Hogei urte dira gidabaimena ateratzen. Duela hogeita bi urte hasi nintzen Itzurun obradorean lanean eta gidabaimena ateratu nuenetik, banaketa egitea izan da nire lana. Furgoneta txikiekin ibili izan naiz beti, opilak eta bestelakoak denda ezberdinetan banatzen. Goizean goiz hasten da nire lana, lehendabiziko orduan banaketak amaituta egon behar baitu. Lana amaitu ondoren ere, ez dut autoa uzten, egun osoz aritzen naiz gidatzen, hara eta hona.

2- Duela urte batzuk askoz ere maizago entzuten zen "emakumea izan behar!" esaldia. Orain geroz eta emakume gehiago ikusten da errepidean eta jendea ohitzen ari da. Emakume asko eta asko ikusten dut ni bezala banaketa lanak egiten eta, autobusak edota kamioiak gidatzen lan egiten duten emakumeak ikustea ere,

geroz eta ohikagoa da. Errepidera irtean, izaten da gaizki begiratzen duen norbait, baina geroz eta gutxiago. Orokorrean, emakumeak lasaiagoak gara gidatzeko garaian eta istripu gutxiago izaten dugu. Horretaz guztiaz jabetzen ari da jendea pixkanaka.

3- Herriguneetan sartuta, trafiko handia izaten da eta zaila egiten zaigu gure lana modu erosoan egitea. Furgoneta aparkatzea geroz eta zailagoa da. Ibilgailuz gainezka egoten dira kale eta txoko guztiak. Lehen etxe bakoitzean auto bat izaten zen, baina orain, familiako kide bakoitzak autoa du eta kaleak gainezka egoten dira. Alde horretatik, hamar urteren buruan gauzak asko aldatu dira. Hori-ze izango litzateke lan honen alderik txarrena.

Kalitatea eta segurtasuna zure zerbitzura

VRPA
A U T O B U S A K

☎ 666 489 010 / 11 (24 orduak)
☎ 943 305 050
FAX: 943 305 060 (Garajea)

Ubilluts auzunea. 55 polig. 9 pabilioia, 4 zbkia. ANDOAIN (Gipuzkoa)

Talleres KARRIKA, S.A.

- AUTO KONPONKETA
- MEKANIKA
- ELEKTRIZITATEA
- AIRE EGOKITUA

Ubilluts auzunea. 56. Pol. 10. zenb. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 300 214 Faxa: 943 590 956

BILGUNE BERDEA

ZULEN KARROZERIA

Elbarrena auzoa. 7. Industrialdea
943 693 046 - Faxa: 943 694 310
8 eta 9 pabilioiak - 20150 Aduna

TRANS-ERNIO-GIPUZKOA

Urtaki industrialdea. 40. pabilioia
20150 ADUNA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 696 061
Faxa: 943 696 179

Mendi autoeskola

Agustin Leiza, 11 - 20140 Andoain
☎ Faxa: 943 300 604

Bengoetxea autoeskola

Andoain 943 594 406
Villabona 943 690 057

autoeskola_bengoetxea@hotmail.com

Puntu bidezko karneta, bero-bero

UZTAILAREN 1EAN JARRIKO DA MARTXAN PUNTUKAKO GIDABAIMENA. BI HILABETE ESKAS FALTA DIREN HONETAN, ORAINDIK ZALANTZA ASKO SORTZEN DU GIDARIEN ARTEAN. ZALANTZA HORIEK ARGITZEN SAIATU GARA.

Gidari bakoitzak puntu kopuru jakin bat izango du bere gidabaimenean. 3 urtetik beherako antzinatasuna duten gidariak 8 puntu izango dituzte eta gainerakoek 12 puntu. Arau-hauste larriek edota oso larriek, puntu horiek galtzen joatea ekarriko dute eta puntu guztiak galduz gero, gidabaimena galduko da. Egindako arau-haustearen larritasunaren arabera, puntu kopuru ezberdinak kenduko dituzte: 2, 3, 4 edo 6.

Orokorrean, egun bakarrean gehienez zortzi puntu galdu ahal izango dira gehienez. Baina gidabaimena egun bakarrean galdu ahal izango da arau-hauste oso larri bat baino gehiago eginez gero. Esate baterako, ezarritako abiadura %50ean gaindituz gidatzea, drogen edota alkoholaren eraginpean gidatzea, lasterketak egitea, kontrako zentzuan gidatzea...

Sistema informatiko berri baten bidez eramango dute puntuen kontrola. Gidari bat punturik gabe geratzen denean trafiko buruzagitzari jakinaraziko dio, gidabaimena baliorik gabe utz dezan.

Puntukako sistema honek, bestalde, ez du esan nahi isunak jarriko ez direnik. Arau-hauste arina egiten dutenek, 90 euro bitarteko isuna izango dute, larriek 91 eta 300 euro bitartekoa eta oso larriek 600 euro bitartekoa.

Gidabaimenean zenbat puntu ditugun jakiteko telefono bat jarri berri dute eskura: 902 200 677. Internet bidez ere puntukako gidabaimenaren inguruko xehetasun guztiak ezagutzeko aukera dugu. www.permisoporpuntos.es



-6 puntu Zigor larrienak

KASU HAUETAN ERE BAI ■ Ezarritako alkohol tasa baino handiagoarekin gidatzea. ■ Putz egindako aire litroko 0,5etik gorako baloreak (profesionalak eta 2 urtetik beherako antzinatasuna duten baimenen jabeek litroko 0,30tik gora). ■ Drogen eraginpean gidatzea. ■ Alkohol edota droga probak ez egitea. ■ Kontrako norabidean gidatzea. ■ Baimenik gabeko lasterketatan parte hartzea edota ausartegi gidatzea. ■ Ezarritako abiadura %50ean gainditzea, 30 kilometro ordukotan gainditzea suposatzen badu. ■ Gidari profesionalak, gidatzeko orduak %50ean gainditzea eta atseden denbora %50ean gutxitzea.

-4 puntu Ezarritako **alkohol tasa** baino handiagoarekin gidatzea

KASU HAUETAN ERE BAI ■ Putz egindako aire litroko 0,25 gramotik 0,5era bitarteko baloreak (profesionalak eta 2 urtetik beherako antzinatasuna duten baimenen jabeek litroko 0,15etik 0,30era). ■ Autobide edota autopistetan debekatutako ibilgailuak gidatzea. ■ Ibilgailuan bidaiari gehiegi eramatea, baimendutako kopurua %50ean gainditzen bada. ■ Gidabaimeik gabe gidatzea. ■ Suterren edota istripuren bat sorrarazi dezakeen zerbait errepidera edota ingurura botatzea. ■ Arduragabe gidatzea, gainontzekoak arriskuan jarritz. ■ Stop batean edota semaforo gorrian ez geratzea edota lehentasun neurriak ez errespetatzea. ■ Kontrako zentzuan datozenak arriskuan jarriaz aurreratzea. Ondo ikusten ez den tokietan aurreratzea. Txirrindulariak arriskuan jarriaz aurreratzea. Beste ibilgailuei aurreratzeko ez uztea. ■ Autopista eta autobideetan atzera marxa egitea. ■ Agenteek esandakoa ez errespetatzea.

-3 puntu Ezarritako abiadura **30Km/ordukotan** gainditzea

KASU HAUETAN ERE BAI ■ Zentzua aldatzeko ezarritako arauak ez betetzea. ■ Aurreko ibilgailuarekin utzi beharreko segurtasun tartea ez mantentzea. ■ Telefono mugikorra, aurikularrak, edota arreta galerazi dezakeen edozein aparailu erabiliz gidatzea. ■ Segurtasun uhala, kaskoa edota bestelako segurtasun neurriak erabili gabe gidatzea.

-2 puntu Ezarritako abiadura **20 km/ordukotan** gainditzea

KASU HAUETAN ERE BAI ■ Tunel, bihurgune edota arriskutsu izan daitekeen beste edozein tokitan ibilgailua geratu edota aparkatzea. ■ Garraio publikorako karriletan autoa geratu edota aparkatzea. ■ Radarrak non dauden jakiteko aparailuak autoan eramatea. ■ Beharrezko argiak piztu gabe gidatzea. ■ 12 urtetik beherako haurrak motorrean edo ziklomotorrean eramatea.

Zer egin daiteke galdutako puntuak berreskuratzeko?



Modu narratsean gidatu eta punturik gabe izanez gero

Puntu guztiak galdutakoan gidabaimena berreskuratzeko modu bat izango dute gidariak. 24 orduko ikastaroa egin eta azterketa bat gaindituz gero, zortzi puntu berreskura daitezke. Hala ere, sei hilabetez ezingo da gidatu. Ez bada gidabaimena galtzen den lehen aldia, hamabi hilabete iraungo du gidatzeko debekua.

Punturen bat mantendu, baina gehiago nahi izanez gero

- 1- Hamabi orduko ikastaro bat eginez lau puntu berreskura daitezke. Gehienez bi urtetik behin egin ahal izango da hori eta gidari profesionalak urtean behin.
- 2- Bi urtez punturik galdu gabe egonez gero, hamabi puntuak berreskuratu dira. Itxaron beharreko denbora tartea hiru urtekoa izango da puntuak galtzea eragin zuen arau-haustea oso larria izan bazen.

Ondo gidatzen dutenentzat: Puntuak metagarriak dira

Gidari txukunentzat puntuak batzen joateko aukera ere izango da. Hiru urtez punturik galdu gabe egotea lortuz gero, bi puntu gehiago metatuko dituzte gida-baimenean eta hurrengo hiru urtetan punturik ez bada galtzen, beste puntu bat gehituko dute. Honela, gidari batek 15 puntu izan ditzake bere gidabaimenean.



Txistoki
karrozeria

COMAQ zegoeneko pabilioia 4.
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) 943 300 020



ARGI
Karrozeria

Bulandegi Bidea
15 Industrialdea
ZIZURKIL
Tel.: 943 692 513
Faxa: 943 693 569

Zure jakinduria frogatzeko lehiaketa

GIDABAIMENA ATERATZEKO GARAIAN IKASITAKO ARAU ETA SEINALEAK, EZ DIRA BETI GOGOAN IZATEN. URTETAN ZEHAR SEINALE BERRIAK AGERTUZ JOAN DIRA ETA ERREPIDEAN IKUSITAKOAN, EZ DUGU HAIEN ESANAHIA ULERTZEN.

Egunero ikusitako seinaleek ez dute aparteko zalantzarik sortzen gidariengan. Gehienezko abiadura zehazten duten seinaleak, aurreratzea debekutzen duten seinale edota lurreko marrak, semaforoak..., ondo ezagutzen ditugu. Baina badira

horren ohikoak ez diren seinale eta arauak, gidari zein oinezkoengan zalantza sortaraz dezaketena. Gidabaimena ateratzerako garaian ondo ikasi arren, urteen poderioz hainbat gauza ahaztuz joaten zaigu eta urteak pasa ahala zenbait

seinale eta arau aldatuz joan da. Esaterako, duela hogeitau urte gidabaimena atera zuten gidariak ez dute jaso errotonden inguruko azalpenik.

Jolas modura, indarrean dauden seinale gutxi batzuk aukeratu ditugu. Zorte on!

Erantzunak: 1-G, 2-C, 3-D, 4-J, 5-A, 6-E, 7-B, 8-F, 9-H, 10-I

1 	2 	3 	4 	5 
6 	7 	8 	9 	10 
a Zirkulazioa debekatua, edozein zentzutan	b Gomendatutako gehienezko abiadura	c Langarik gabeko trenbidea	d Errepideko zorua egoera txarrean	e Aparkatzea debekatua, egun bakoitietan
f Atseden-gunea	g Eskubitik datozenek lehentasuna dute	h Sarrera debekatua	i Gutxieneko abiadura	j Lehentasuna duen errepidea

Karrozeria Mekanika Elektrizitatea

ILLUNJA

Industrialdea, 15 ZIZURKIL
Tel.: 943 691 818

Etorri eta proba ezazu!

AZKAIN Motoak

- Salmenta eta konponketak
- Prezio interesgarriak

Ubilluts auzoa, Pol. 56-12 • Andoain. Tel.: 943 591 413 / Faxa: 943 590 456
www.azkainmoto.com / azkainmoto@azkainmoto.com

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Hedabideak sortu, garatu eta kudeatu - Argitalpenak taiutu, ekoiztu eta euskaldundu

Erroitz, b.m. - erroitz@erroitz.com - 943 300 732

ZABALAGA TAILERRA
automobilaren mekanika orokorra
943 300 169

Ama Kandida
DENAC industrialdea
203 Pabilioia
20140 ANDOAIN

IBAI-ONDO GARBIKETAK

943 692 256

Industrialdea, 16
20170 Irura

Ana Sanchez, autoeskolako irakaslea

URTE ASKO DARAMA ANA SANCHEZEK AUTOESKOLAKO IRAKASLELANEAN. GIDARI GAZTEAK HEZITZEA DA BERE ARDURA. BARRUTIK EZAGUTZEN DU TRAFIKOAREN ARAZOA ETA GAIAREN INGURUKO ARGIBIDE GEHIAGO ESKAINI DU.



“Oporretara abiatu eta lasai joan beharrean, berehala iristea izaten da helburua”.

Nola ikusten duzu gaur egungo gidarien jokabidea?

Gidariak ez dira jabetzen jokabide askok ekar dezakeen arriskuarekin. Inork ez du aurreikusten istripua izan dezakeenik. Gainera, geroz eta pazientzia gutxiago dugu. Autoa gidatzerakoan hartzen dugun jarrera ez da egokiena izaten, oso oldarkor jartzen gara, ingurukoei biraoka eta presaka. Bidaia zenbat eta azkarrago egin, hobe. Gehiegizko konfiantzaz gidatzen du jendeak. Oporretara abiatu eta lasai jo-

an beharrean, berehala iristea izaten da helburua, arriskua kontuan hartu gabe. Gainera, edozein tokitara joateko autoa hartzera ohitu gara.

Zein izan daiteke konponbide egokiena?

Beti esan izan da hezkuntza dela irtenbidea. Haurrak txiki-txikiak direnetik hasi behar da bide segurtasunaren inguruko azalpenak ematen. Ez da itxaron behar gazteak autoeskola-

ra etortzeko adina izan arte. Zerbait ikastetxetan hasiak dira lan horretan. Zalantzarik ez dago, bestalde, ikastetxean erakusten zaienaz gain, etxean ikusten dutenak ere garrantzia handia duela. Gurasoekin autoan doan haurrak etengabe ikusten badu Stop seinalearen aurrean ez dela geratzen, aldameneko autoan doazenei garrainsi egiten zaiela edota gerrikoa ez duela inork jartzen, arazo bat sor daiteke. Ikastetxean

“Arau-hausteak direla eta gidabaimena galdu duen gidari batek, utziko ote dio gidatzeari? Hasu askotan gidatzen jarraituko dutela iruditzen zait”

ikasitakoa galdu egingo dute haur horiek.

Puntukako karneta baliagarria izango al da bide segurtasuna bultzatzeko?

Arauk betez gidatzen duenak, orain arte bezala jarraituko du uztailearen 1etik aurrera ere. Nire zalantza da arauak betetzen ez dituzten horiek jarrera aldatuko ote duten edo ez. Gaur egun, jende asko dabil errepedean gidabaimenik gabe eta puntukako karnetak arazo hori areagotu dezake. Arau-hausteak direla eta gidabaimena galdu duen gidari batek, utziko ote dio gidatzeari? Kasu askotan gidatzen jarraituko dutela iruditzen zait eta hori kontrolatzea oso zaila izango da.

Bestalde, gidabaimena galdu duten gidariak birziklapen ikastaro bat egiteko aukera izango dute autoeskolan, baina ez da erraza izango. Gidatzen urte asko daramatzen pertsona

bati nola gidatu behar duen erakustea ez da lan samurra.

Gerrikoen edota mugikorren erabilera kontrolatzeko kanpainen inguruan zein iritzi duzu?

Ondo dago kontrol lana egitea, baina, zalantza sortzen zait, ez ote den gehiegi jotzen mehatxura. “Ez baduzu gerrikoa jartzen, hainbeste euro ordaindu beharko duzu, eta uztailetik aurrera hainbeste puntu galduko duzu”. Jendeari ulertarazi behar zaio gerrikoa jartzea bere segurtasunaren aldekoa dela, edota haurrak eserleku egokian eraman behar direla haiek babesteko eta ez isuna ekiditeko.

Zer egin dezake autoeskolak bide segurtasuna handitzeko?

Ez da erraza gazteak arriskuaz jabetzea. Istripuen inguruan hitz egiten hasten garenean, nabari da badutela gaiaren inguruko beldurra, baina ez dakit zenbaterainokoa den. Beti urruti gertatzen den zerbait bezala bizi dute, gutako edozeini gertatu ezin balitzaio bezala. Gidatzean norberak ez du nabaritzen bere burua arriskuan jartzen duenik. Gure lana, arauak erakustea gain, hori ikustaraztea da, baina ez da lan erraza.





Easo Motor
Oria Etorbidea
20160 Lasarte
Tel.: 943 376 753



**Eskaintza berezia:
FOCUS BERRIA eta 0 KM**

Beti zure ondoan
www.easomotor.com - Tel. Inf.: 902 260 426

FORDEN SARE OFIZIALA

Donostia
Zarautz hiribidea, 90
Lorea (Antigua)
943 214 136

Lintzirin-Olartzun
Lintzirin poligonoa, 10
(Carrefour parean)
943 260 391

Lasarte-oria
2 pabillola
(N-1en irteera, 451 zb.)
943 376 753

Beasain
Mujika automobilak
N-1 errepeidea, 419 km
943 887 400

Irun
Vertiz
J.Thalarnas, 48
943 629 200

ESKAINNTZA BERRIA

Aire girotuaren karga

berria



PRIMACY HP

servirueda.com
902 37 38 39 **SERVIRUEDA**

URIA PNEUMATIKOAK

CARQUIZANO, 2 BAJO - 20001 SAN SEBASTIAN (GUIPUZCOA) - TEL.: 943279734
AKARREGUI, 27 - 20120 HERNANI (GUIPUZCOA) - TEL.: 943552162

ESKAINNTZA GEHIAGO:

- Olio aldaketak
- Pastilla aldaketak
- Balazta, isuri eta kolpe-motelgailuen aldaketak
- Lerrokatzeak

"Lana ondo egitea gustuko dugu, herritar guztiontzat hoberena baita"

NOIZEAN BEHIN GURE IBILGAILUAK AZTERTU BEHAR IZATEN DIRA. HORRETARAKO, INGU- RUKO HERRITAR GEHIE- NEK URNIETAKO ITV- IATRA JOTZEN DUTE.

Enpresa gisa Urnietako-IATk zer izaera du?

Iñigo Legorburu: Kontzesio baten bitartez lan egiten duen enpresa pribatua da, bere izena: TÜV Rheinland Ibérica S.A. Enpresa honek Gipuzkoako eremu bat kudeatzen du; une honetan, Urnietako eta Irungo IATak. Urnietako IATak ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: garrantzizko erreformak ibilgailuetan, fitxa teknikoen duplikatuak, atzerriko ibilgailuen azterketa, ibilgailu historikoak...

Zeintzuk dira zuen eginkizunak?

I.L.: Gune hau kudeatzeaz arduratzen gara, eskaintzen ditugun zerbitzuak kalitatekoak izatearen alde lan egiten dugu. Helburua, bezeroak gustura izatea da.

Zeintzuk dira ibilgailuek izaten dituzten ohiko gabeziak?

I.L.: Argiak, gurpilak eta frenoak izaten dira normalean. Motorra, transmisioa, direkzioa eta identifikazio atalak dira beste ohiko gabeziak. Hala ere, horietako gabezi batzuk IATra etorri baino lehen bezeroak berak azter ditzake.

Zorrotz fama duzuela diote. Hala al da?

I.L.: Ez gara hain zorrotzak. Erakundeek ezarritako arauak betetzen ditugu. Alde horretatik, guk ditugun datuak ez digute esaten gu zorrotzenak garenik. Lana ondo egitea gustuko dugu, herritar guztiontzat hoberena baita. Hori da gure ustean, kanpotik ikusten ez dena batzuetan. Denok gure aldetik zerbait jarrita, errepidean seguruago ibiliko ginatke.



Iñigo Legorburu, Urnietako dagoen ITV-IAT gunearen arduraduna da.

© Xabier Ubeda

Gidariok arduratsuak al gara, ibilgailuen mantenimenduari dagokionean?

I.L.: Orokorrean ondo. Batzuek oso ondo zaintzen dute autoa eta besteek, denbora gutxi dutelako edo ez dute behar bezala zaintzen. Denetik ikusten da.

I.L.: Bai; errepideei begira arrisku gehiago, bai berarentzat zein errepidean doazen gainerakoentzat ere. Bestetik, utzikeria horrek ibilgailua hondatzen joatea ekartzen du.

Ibilgailuak gaizki zaintzeak ondorio kaltegarri ugari ekar ditzake?

Bezeroen aldetik eskaera edo iradokizunik jasotzen al duzue?

I.L.: Eskaerak beti izaten dira. Alde ho-



Betteri-Aitzondo-Buruntza eskualdeetako gidariak hurbiltzen dira Urnietara.

© Xabier Ubeda

Bezeroek zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko aukera dute

rretatik, gustura jasotzen ditugu mota guztietako kritikak: onak eta txarrak. Horietatik guztietatik beti zerbait positiboa ateratzen dugu. Onak askoz errazago jasotzen ditugu, onak baitira; baina, txarrak ere iristen dira. Kritika horrek zerbait gaizki egiten ari zarela eta konpondu behar duzula pentsarazten dizu.

Zer gomendatuko zenieke IATra lehen aldiz datozenei?

I.L.: Lehenik, lasai etortzeko. Asko urduri etortzen da eta ondorioz, tentsioak sortzen dira. Azkenean, segurtasun arloko azterketa orokorrak dira. Haiek lasaitzeko tratua ona eskaini eta haiekin hitz egiten dugu. Konfiantza eman eta IAT azterketak bere zentzua duela ikustarazi nahi izaten diegu. Bestalde, hona etortzeko gidabaimena eta kotxeko fitxa teknikoa ekarri behar da. Gainerakoa hemen egiten da. Edonor etor daitete; autoko titularrak ez du zertan etorri behar. Amaieran, azterketako emaitzen inprimaki bat ematen dugu.

IAT berriak zabaltzeaz dira. Nola ikusten duzue etorkizuna?

I.L.: Donostialdeko eta Tolosaldeko jendea etortzen da. Baliteke lan kopurua murriztea, bezeroak bere ibilgailua non aztertu erabaki baitezake eta ondorioz, oraingo lan-zama banatu.

Euskarareriko konpromisoa hartuta duzue?

I.L.: Inprimakiak eta oharrak euskaraz ditugu. Langile gehiengoak euskalduna da, zerbitzu hori eman beharra baitago. Bezeroek zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko aukera dute. Beharrezkoa dela eta aukera horrek egon behar duela uste dugu.

DESA CRISTAL

AUTO BEIRAGINTZA

- Muntatze, salmenta eta beira konponketak
- Haizetako kolpe konponketa
- Auto pribatu, furgoneta, kamioi, autobus
- Eguzki xafla homologatuaren instalatzea



IRURA

Lantegia eta bulegoak
Ibaiondo Bailara, 17- 8. Pab.
Nacional 1 errepidea / Madril-Irun
20271 IRURA
Tel.: 943 691 616 Faxa: 943 691 247

BERGARA

Lantegia eta ofizinak
SANTALAIZ 6, 5. Pab.
Tel.: 943 763 609 Faxa: 943 767 345
20570 BERGARA

HELDUEN HEZIKETA IKASTETXEA EPA BEZALA EZAGUNAGOA DA

Ikasten hastea inoiz ez delako berandu...

Amaitu gabeko ikasketak bukatu edota piztutako jakin mina itzaltzeak ez du adinik, ezta beste inolako mugarik ere. Ostiralean itxi zen Urnietako Helduen

Heziketa Ikastetxean izena emateko aurrematrikulazio kanpaina.

HHI-EPA: Andoainen eta Urnietan ikasteko aukera dago

Garai batean, ikasketak amaitzeko aukerarik, beharrik edo gogorik izan ez zutelako lagun asko hurbiltzen da bere herriko edo inguruko EPAren batera ikastaro bat egin edota amaitu gabeko ikasketak bukatzera. Bigarren Hezkuntzako graduatua eskuratu, hizkuntzetan trebatu, idazten eta irakurtzen iaiotu edota Erdi Mailako hezkuntza zikloren bat egin daiteke bertan. 25 urtetik gorakoari zuzendutako unibertsitatara sartzeko frogetarako prestakuntza ere eskaintzen dute.

Gazteak izaten dira askotan; besteetan, helduak. Azken horiek ikastera itzultzeko zailtasun gehiago dute. Zailtasun horien artean, lan ordutegia, familia mailako ardurak edota herri batetik bestera mugitzeko arazoak izan badaitezke ere, bada guztien gainetik gaintitu beharreko beste oztopo nagusi bat: lotsa. Badirudi, behin ikasketak utzi, lana aurkitu eta familia berria osatzean, astakeria hutsa dela berriro liburu tartean murgiltzea. Iru-dipenak, ikastera itzuli diren askoren esperientziak kontuan hartuta.

EPAko ikasle askorentzat profesionalki eta pertsonalki ere ikastea esperientzia aberasgarria izan ohi da.

LAGUN BERRIAK EGITEKO TOPALEKU

Gainera, antzeko egoeran dauden hainbat lagun topaleku izan ohi da; adibidez, seme-alabak hezita, langabezian dauden hainbat emakumerena. Hain zuzen, tarte handiz, emakumeak dira gizonezkoen parean ikasteko gogo gehiago izaten dutenak.

Urnietan taldeak sortzeko arazoak izaten dira; ez baitute behar beste lagunak izena ematen. Ikasi nahi duenak lotsa alboratu eta animatzeko dei egiten dute berriz ikastera itzuli direnek. Ikasteak iraungitze datarik ez baitu.



1-Zer ikasi duzu EPAn? 2-Nolatan erabaki zenuen bertan izena ematea? 3-Zer nolako esperientzia izan da zuretzat? 4-Erabilgarria al da EPAn ikastea?

Maika Guiral

1. Batxilergoa amaituta urtebete egon nintzen EPAn. Ondoren, erizain laguntzaile izateko ikastaroa egin nuen.
2. Batxilergoa amaitzeke nuen. Beti uzten ari nintzen. Alaba hazita nuenez, denbora libre izanda, etxea gainera erortzen zitzaidan. Lan egiten ez nuenez, une egokia zela pentsatu nuen. Joan eta amaitu nuen. Hain zuzen, Bigarren Hezkuntzako graduatua ez baduzu, ez duzu ikastaroetarako sarbiderik. Alde horretatik, oso mugatua zaude.
3. Oso ondo egon nintzen. Irakasleak oso jatorrak ziren; ikaskideak ere. Gure garaian Informatikaririk ez genuen ikasten; orain bai. Ikasketa konputuetan eguneratzen zara, titulu eskuratu eta ikastaroak egiteko aukera duzu.
4. Oso erabilgarria izan da. Iaz amaitu nuen erizain laguntzaile izateko ikastaroa. Praktiketara aritu nintzen hospitalean eta orain Lasarte-Oriako Eguneko Zentroan lanean nabil. Ikasi duzun horrekin lotutako lanpostua izatea gozagarria da.

M.Victoria Ibañez

1. II. Hezkuntzako graduatua eskuratu nuen. Gero, ikaskide batek klinikako laguntzaile izateko ikastaroa egin nahi zuela eta, apunteen bidez, bost ikaskide aurkeztu ginen. Hori ere eskuratu nuen.
2. Batxilergoa amaitzeko zenbait arlo gaintzeke nituen. Langabezian geratu nintzen, zerbait egin nahi nuen. Ikastaroetan parte hartzea gustuko dudanez, izena eman nuen.
3. Izena eman nuenerako ikastaroa hasita zegoen. Hasieran, lotsa pixka bat ematen zidan, baina oso ondo moldatu nintzen, oso giro ona baitzegoen. Esperientzia berria izan zen, ingelesa ikasten hasi bainintzen. Ikastaro bat amaitu orduko beste zerbait ikasten hasteko gogo sortzen zaizu.
4. Graduatu eskuratu izan ez banu, klinikako laguntzaile izateko ikastaroa ezin izango nuen egin. Gainera, erresidentzia batean praktiketara aritu nintzen. Bestalde, matematikari beldurra nien. Baina orain, ulertzen ditut eta gustuko ditut.

Arantxa Gomez

1. Informatika ikastaroa egin dut. Uste dut, oinarrizkoa dela gaur egun horri buruz zerbait jakitea.
2. Uste dut, egun denok jakin behar dugula zerbait informatikaren inguruan, oinarrizkoa baita. Eta nik ez nekien ezer. Idatzi eta irakurtzen ikastea bezain beharrezkoa da. Gazteek badakite, baina nire garaitan horrelakorik ez zegoen.
3. Oso esperientzia ona izan da, irakasleei eta ikaskideei dagokienez. Oso talde jatorra osatzen genuen. Lau hilabete egon ginen baina laburra iruditu zitzaidun, oso gustura egon baikin. Beste talde batzuekin batera afaltzera ere joan izan gara.
4. Informatikari buruz ezer ez dakien nire adineko pertsona batentzat oinarrizkoa da informatika ikastea. Une honetan, langabezian nago baina saltzaile gisa lanean aritu izan naiz. Une honetan ez dut beharrik baina etorkizunean, lanpostu horretan bertan edo lanbidez aldatuta, beharrezkoa gerta dakidake. Bere garaian ikasteari utzi zionarentzat lan mundura sartzeko aukera bikaina da.

18:00tan, dohainik

Kontzertu didaktikoa Saroben, larunbat honetan

Urnietako Udal kultur sailak "Chopin Studio" rekin batera, abuztuan Udalak antolatuko dituen udaleku musikalen aurkezpena egiteko, kontzertu didaktikoa antolatu du, familia osoari zuzendua.

XABIER LIZASO ZUZENDARI

Kontzertua larunbata honetan izango da, hilak 13, arratsaldeko seietan hasita, **Sarobe** arte eszenikoen gunean. Sarrera doan izango da.

Ikusleek musika modu ludiko, aktibo eta parte-hartzaile batean gozatu dute. Zuzendari lanetan **Xabier Lizaso** pianista beterranoa egongo da.

Beterriko euskalgintza eta kultur elkarte batek

JARDUERA ERAGILEA BEHAR DU

Kultur elkartearen hainbat ekimen garatu eta kudeatzeko

Eskatzen da:

- Historia.
- Euskara ongi menperatzea hitzez zein idatziz.
- Ekintza egitarauak osatu eta garatzeko gaitasuna eta eskarmentua.
- Jendearteotasuna eta gizataldeak gidatzeko gaitasuna.
- Euskal Herriaren ezagupidearekiko joera izatea.
- Lan-jarduna antolatu eta ekonomizatze gaitasuna.

Baloratuko da:

- Giza-zientzietako alorren batean lizentziatu ala diplomatu izatea edo maila berean pareka daitezkeen ikasketak izatea.
- Hizkuntzak.
- Gisa bereko lan edo jardueretan eskarmentua.

Eskainiko zaio:

- Hiru hilabeteko lan-kontratu, luzagarria, lanegun erdiz.
- Egitarau aitzindari bateko eragile izatea.
- Euskal Herria ezagutzeko lan egiteko aukera.

Bidali zure Curriculum Vitae-a honako helbidera:

JARDUERA ERAGILEA
44. postakutxa
20.150 AMASA-VILLABONA

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Bazkaria

INISTORRA

Ekoizlea: **ERROITZ**
KALITU MUGATUA

Laguntzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

Manuel Larramendi Kultur Bazkunaren Andoaingo Udalerri Biltzarra eta Urnietako Inistorra Euskaltzaleen Biltzarra.

Egoitza Orokorra:

Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: aiurri@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Urnietako egoitza:

San Juan Plaza, 9
20130, Urniet
Tel.: 943 331 455
@: urnieta@topagunea.com
Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.

Erredakzioa:

Ainhoa Gil, Aritz Gorriti, Jon Ander Ubeda eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.

Publizitate

Arduraduna: Fernanda Irazu.

Argazkilariak:

Xabier Ubeda.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia (Huarte-Iruñea).

Lege Gordailua: SS-1078/04
ISSN: 1698-4870

Kudeatzailea:

Aitziber Arreseigor.

Banaketa

arduraduna: Xabier Ubeda.

Banatazaileak:

Andoain: Laida Jauregi, Elixabet Isasi.
Urnietako: Ander Balda, Beñat Erkizia.

Agenda

MAIATZAREN 12TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: 943 300 732 / aiurri@topagunea.com

Mendizaleak

Andoain

- Urko-Kalamua, haur ibialdia Maiatzak 14, igandea
- Ernioko martxa, Errezildi abiatuta Maiatzak 14, igandea

Argazki-rallya

Urnietako

- Gaiak egunean bertan adieraziko dira. Maiatzak 14, igandea. 09:00. Lekaio

Erakusketa

Andoain

- Zeppelin erakusketa. Bastero Maiatzak 6 - ekainak 23

Pilota

Andoain

- Herrien arteko txapelketa. Andoain-Beasain Maiatzak 19, ostirala. Joanekoa Maiatzak 26, ostirala. Itzulikoa

Manifestazioa

Donostia

- Erraustegien aurkako Gipuzkoako plataforma ezberdinek deituta. Maiatzak 13, larunbata. 18:00 Boulevard-etik abiatuta

Lehiaketa

Andoain

- Sanjuanak, kartel lehiaketa Epea: maiatzak 23, asteartea



Kanpaina

Urnietako

- Aiurri astekariak harpidedun-laguntzaileak behar ditu egitasmoa iraunarazteko. Urnietako euskaltzaleen babesa funtsezkoa da. Mahaitxoak ipiniko dira maiatzean, larunbatero. Maiatzak 13, 20 eta 27. San Juan plaza, Idiazabal kalea 11:00-13:30
- Asteazken harpidedun egiteko aukera dago Aiurri Urnietan duen egoitzan. San Juan kalea, 9. Ordutegia: goizez. 943 331 455 / urnieta@topagunea.com

Hitzaldia

Andoain

- "Markak, arrastoak" izenburupean, irakurketa **Bernardo Atxaga** idazlearen eskutik. Asteazken idazleak 36ko Gerraren pasadizioetan oinarrituta osatu duen lanaren aurkezpena. Maiatzak 17, asteazkena. 19:30. Bastero
- **Mahaingurua** Andoaingo Oroitz taldearen eskutik. Maiatzak 18, osteguna. 19:30. Bastero

Inaugurazioa

Andoain

- **Fusilatuen omenez** Andoaingo Udalak antolatutako inaugurazioa. **Gotzon Etxeberria** Andoaingo eskulturgileak egin duen eskulturaren inaugurazioa. Musika eta dantza saioa izango da. Maiatzak 20, larunbata. 12:00 Etxeberrieta plaza, Alfaro parkea

Jaunartzeak

Urnietako

- 11.30, San Migel elizan Maiatzak 14, igandea

San Isidro

Urnietako

- 11.00 Meza Nagusia San Migel elizan. Ondoren, Lekaion hamaiketako eta Patxi Etxeberria eta Joxe Agirre bertsolarien saioa. Bazkaria Zaldundegi jatetxean. Bertan bazkaltzeko izena emateko 943 551 008 telefono zenbakira hots egin. Bazkalostean, bertso saioa. Maiatzak 15, astelehena

Deialdiak

Beterri-Buruntza

- **Errenta aitortpena** Gipuzkoa, Ekainaren 26ra bitarte
- **Ondasun higiezinaren gaineko zerga** Andoain, Ekainaren 30era bitarte Infoa: zergabilketa@andoain.org
- **Altzari eta tresna bilketa** Urnietako, Maiatzak 15 eta 31 20:00ak baino lehen, ohiko tokitan

UKE-EMAITZAK

- Erregionala, 1. maila** UKE 5-Mariño 3
- Jubenilak, 1. maila** UKE 3-S. Tomas Lizeoa 0
- Kadeteak, 1. maila** UKE 1-Zumaiako 10
- Infantilak, 1. maila** UKE 3-Martutene 3
- Emakumezkoak F8** Oiarzun 3-UKE 3

LEIZARAN-EMAITZAK

- Senior mutilak** Groseko 23-Leizaran 21
- Jubenil mutilak** Leizaran 34-Bergara 31
- Infantil mutilak** Andoaingo ikastola 15-Zarautz 19
- Jubenil neskek** Leizaran 21-Bergara 23
- Leizaran 14-Ehariaidea 18
- Kadete neskek** LS Legazpi 5-Leizaran txiki 47
- Leizaran 19-Elgoibar 13

ASTE BURUAN ZER?

- Infantil mutilak** Andoaingo ikastola- LSB Lar, 12:00, Allurralde
- Kadete neskek** Leganes-Leizaran Ost, 19:30, Leganes
- Rocasa Remudas-Leizaran Lar, 19:30, Leganes

EUSKALDUNA

ASTE BURUAN ZER?

- Erregionala** Bete ona- Euskalduna Lar, 20:00, Beraun
- Kadetea, 1. maila** Euskalduna-Zumaiako Lar, 11:30, Allurralde
- Emakumeak, F-8** Euskalduna- Loinazpe Lar, 10:00, Allurralde
- Alebinak eskolartekoa** Orixe-Txepetak Lar, 12:00, Herrera

MAIATZAREN HAMALAUAN HERRI URRATS... DENOK SENPERERA!!

Astekariaren aldeko dirubilketa

- Bete txartela edo deitu 943 331 455 edo 943 300 732 zenbakietara
- Urnietako San Juan kaleko bulegoa zabalik!! Ordutegia: 09:00-13:00
- Urnietar guztien laguntza behar dugu

Aiurri

Beterri-Buruntzako astekaria



- Izen Abizenak
- Helbidea
- Telefono zenbakia
- Jaiotze urtea
- Kontu Korronte zenbakia (20 euro, besterik ez)

Lopez de Lacalleren omenez



Aurreko igandean, Jose Luis Lopez de Lacalleren heriotzaren urteurrenean, ekitaldi xumea eskaini zioten etxekoek eta Andoaingo Udal ordezkariak.

Udaberri giroa Leitzaranean



Irudi atseginak eskaintzen ditu udaberriak. Aurrerantzean, ohikoa izango dira horrelakoak Leitzaranean. Eguraldiak laguntzen duenean, ingurua zoragarria da.

Andoaingo igerilarien sasoia



AKEK taldeko hemezortzi kidek Tolosan egin zen lehiaketan parte hartu zuten apirilaren 29an. Emaitza ezin hobekak lortu zituzten, sasoiako dauden seinale.

Klik eta klik



Ikastetxe mailako Internet bidezko **Klik eta klik** lehiaketan parte hartu zuten ikasleek festa egin zuten Donostian. Andoaingo **Aita Larramendi Ikastola** izan da garaille. Urnietako **Salesiar ikastetxea** (5.postua), **Egape ikastola** (13.postua) eta Andoaingo **Leizaran institutua** (47.postua) ere lehiakide izan dira aurrean. Zorionak parte hartu duten ikasleei!

Gazte bertso trama Basteron



Ikasturte amaierako ekitaldi ikusgarria eskaini zuten bertsolaritza ikasten ari diren gaztetxoek. Ikastetxe ezberdinetako ikasleek parte hartu zuten ikuskizunean.



IEFPS USURBIL GLHBI



AURREINSKRIPZIO EPEA: ekainaren 7 arte

ESKAITZA AKADEMIKOA

**GOI-MAILAKO
ERDI-MAILAKO
HEZIKETA
ZIKLOAK**

30 Urte



Pertsonak hezitzen



Jardunaldi irekiak:
maiatzak: 13 larunbata (11etan)
20 larunbata (11etan)



- ▶ **Eskola autobusa**
- ▶ **Andoaindik 10 minutura**
- ▶ **Lanpostu poltsa.**
- ▶ **Laneratze porzentai handia**
- ▶ **200 enpresa baino gehiago praktiketarako**
- ▶ **Atzerrian praktiketarako (programa Leonardo)**
- ▶ **Gaur egungo hornikuntza makinari industrialarekin**

Etarte bidea, 9 (Zubieta) 20170 USURBIL
Tfn: 943 36 46 00 e-mail: eskola@lhusurbil.com
www.lhusurbil.com